

getxoBerri

/ Nabarmentzekoak

- > Migratzaileen Nazioarteko Eguna (4. or.)
- > App mugikor berria Udaltzaingoaren eraginkortasuna hobetzeko (5. or.)
- > Udalak ASTEKLIMA 2024 saria jaso du (5. or.)



Kontzertua. Getxo Eszena Irekia.
Abenduak 14, larunbata, 19:00etan, Muxikebarrin, "Hungria Hollywood": Botond Ódor (abeslaria), Luminita Duca (pianista) eta Lucía Astigarraga (narratzailea). 12€.

Antzerkia. Abenduak 14, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, "La dama duende" Mic Producciones-ekin. 10€.

**A-
GENDA**

EAJ/PNVk, PSE-EEK eta PPK 2025eko Aurrekontuaren onarpena errazteko akordio politikoa sinatu dute

Udal Gobernuko talde politikoek (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta oposizioko talde nagusiak, PPK, 2025eko Aurrekontu Orokorra onartzeko akordioa sinatu dute, 137 milioitik gorakoa. Hala, abenduaren 19an egingo den udalbatza berezian, EAJ-PNVk eta PSE-EEK baiezko botoa emango dute eta PP abstenitu egingo da.

35 ekintza itundu dituzte

Ekintza guztietatik, 35 dira hiru taldeen artean itundutakoak (17, 2025eko Aurrekontuari egindako zuzenketen bidez, 4 milioitik gorakoak). Haietako batzuk ez dute aurrekontu-babesik behar gaur egun, baina baliteke geroago behar izatea.



Mugikortasuna eta Irisgarritasuna

Bidezabaleko 1. eta 2. arrapalak erabat berritzea, beheko biak	610.000€
Salsiduko 9 arrapaletako hainbat elementu hobetzea	1.000.000€
Ereagako igogailuaren zati bat berritzea	150.000€
Fuerosen arrapala berriei buruzko azterlana eta, posible bada, legegintzaldi honetan gauzatzen hasteko konpromisoa	10.000€
Arrapalen kontrola eta mantentzea indartzea	
Bidezabaleko arrapala bat estaltzea bideragarria den azterzea, proba pilotu gisa	80.000€
Aldundiari eskatzea autobus-markesina berriak jartzeko edo, halakorik ezean, udalak bat jartzeko Villamonten eta San Martin kalean	100.000€
Ereaga aldea eraberritzeko proiektu bat egitea Arriluzeko eta Txomintxuko biribilguneen artean	50.000€
Kalean 5 aparkaleku jartzea elektrolinera gisa	50.000€
Miramar kaleko 3. fasea gauzatzea	325.000€
Hiri-autobusa. 2024tik gauzatzeke dagoen zenbatekoa 2025era eramateko konpromisoa. Lehen probak	450.000€
Las Mercedeseko aparkalekua. Konpromisoa berrestea hori gauzatzeke, 2024an islatzen zen bezala eta 2025ean eta hurrengoetan ere, konpromiso-kredituen bidez	5.500.000€
Sarrikobaso. 2024an hasitako espedientetik eratorritako jarduketekin konpromisoa, erortzeko zorian dagoen hiriguneari irtenbidea emateko	
Los Furoseko aparkalekuaren azterketari dagokion soberakina sartzeko konpromisoa	
CTB-Garraio Partzuergoari metro-zatietan zarata arintzeko pantailak jartzeko eskatzea. Eta baieztapena, CTBri formalki helaraztea metroa Getxon zehar lurperatzeko eskaera	

Herritarak

Eguneko arretarako eta/edo etxebizitza komunitariarako eraikin berria Iturribarriko udal-partzelan: 750.000€. Proiektua gehi obra	750.000€
Poligono gorrian kultura- eta gizarte-zentro berri bat irekitzea, HABen zerbitzu batzuk ere emateko. 2026, 2027 eta 2028an konpromiso-kreditua	1.200.000€
Portu Zaharreko zelaigunean agertoki bat (maskor akustikoarekin) ipintzeko proposamena, aurretiazko prozesu parte-hartzaileekin. Proiektua + obra	400.000€
Fadurako errugbi, belodromo eta atletismoko harmailak	7.500.000€
Komun publiko berria Algortako Geltokia plazan	100.000€
Biotz Alai plazaren hobekuntza estetiko eta erabilera ikasketa-geletarako moduluekin edo udal-liburutegien osagarriekin	200.000€
Udal haur-parke batean uretako elementuak instalatzea	100.000€
Liburutegiak herritarrengana hurbiltzeko aukera ematen duten liburukutxen kopurua handitzea	30.000€
Galean autokarabanentzako aparkaleku baten proba pilotua (15-20 plaza)	80.000€
Merkataritzarako leihatila pilotu bat instalatzea	30.000€
Parcoure gune bat ipintzea	50.000€
Armairuak jartzea Ereaga hondartzan	50.000€
Parte-hartze prozesua Antiguu Golfen Padeleko pisten estaldurari buruzko iritzia baloratzeko	18.000€
Tangora etxea elkarrekin erabiltzeko uztea, Gizarte Kohesioak kudeatuta	
Muxikebarriko txartela ateratzea eta erabilera pribaturako espazioak uztea	2025ean
Getxoko ikastetxeetako soberakinen azterketa egitea	18.000€
Errekaganen proiektu baten azterlana txertatzeko konpromisoa	
Atsedean Zerbitzua eta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua berrikusteko eta hobetzeko azterketa	
Saltokientzat dirulaguntzak: Getxo Moda (+30.000€, 80.000€ arte); Jarduera-lerroa 60.000€ handitzea (+40.000€ren aukera)	
Gizarte-subentzioak: Gurutze Gorria (+100.000€), ELA jaialdia (100.000€), Argia (+5.000€) eta Sarekide (+17.000€)	

Amaia Aguirre alkatea-EAJ/PNV:

"Itun honek erakusten du, beste behin, Getxoko herritarrekiko dugun erantzukizun kolektiboa, interes orokorra lehenetsiz eta gure udalerrriaren erronketan aurrera egiteko egonkortasun instituzionala bermatuz. Indartu egiten du elkarriketaren eta lankidetzaren aldeko apustua, eta gure konpromisoa lehenetsizko ekintzekin gure bizilagun guztien bizi-kalitatea hobetzeko eta Getxorentzat etorkizun hobe bat bermatzeko".

Carmen Díaz, PSE-EE eta alkateorde:

"Akordioa da ezinbesteko bidea. 2025erako aurrekontua, korporazioaren %72k adostua, udalerria garatzeko funtsezko proiektu estrategikoak bultzatuko ditu, gure Legegintzaldi Planaren barruan jasotakoak: irisgarritasuna lehenetsiko dugu, arrapala eta igogailuekin, mugikortasuna hobetuko (hiri-busarekin eta Areetako aparkaleku berriekin) eta mendekotasuna duten adinekoei arreta hobetuko ere (etxebizitza komunitarioko eta eguneko arreta-plaza berriekin)".

Eduardo Andrade, Alderdi Popularra:

"PPK beti bilatu eta bilatuko du alderdiok batzen gaituena gure herria hobetzeko, bestelako desadostasunak egon arren. Izan ere, akordioak aurrekontuei egindako zuzenketak ez ezik, hainbat urteri eragiten dieten konpromisoak ere jasotzen ditu, Getxo hobetuko dutenak eta gure hauteskunde-programaren parte zirenak".



ABENDUAK 5 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Jose Mari Goenaga eta Jon Garañoren "Lo-reak" (AJB). 7 urtetik aurrera. 3,50€.

ABENDUAK 6 OSTIRALA

Umorea. 19:30ean, Muxikebarrin, "Tu-tum, platz!" (euskaraz), Jon Plazaolarekin. 6€.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Jean Renoiren "La regla del juego" (AJB). Adin guztiak. 3,50€.

ABENDUAK 7 LARUNBATA

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Eukalyptus" (euskaraz), Jon Ander Urresti eta Beñat Urrutiarekin. 6€.

ABENDUAK 8 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Mavka, Basoko guardiana" (euskaraz). 2,50€.

Familientzako kontzertua. 18:00etan, Muxikebarrin, "Famijazz", Kike Mora (baxua), Rakel Arbeloa (bateria), Elsa García-Lizundia (saxoa) eta Mikel Gaztañaga (pianoa). 6€.

ABENDUAK 9 ASTELEHENA

Hitzaldia. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Kant vive, la lucha sigue" goiburuko hitzaldia. Hizlariak: Iñigo Martínez, Gonzalo Gómez eta Teresa Maldonado. Antolatzailerak: Sínope Kultur Elkarteak.

Txatxarrak taldea. 19:30ean, Romo Kultur Etxean. Testuak euskaraz sortzea, euskal literaturako testuetatik abiatuta (ikuspegi feministarekin), Garazi Basterretxea Bareak gidatuta. Egizuk antolatuta.

ABENDUAK 10 ASTEARTEA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, AJANERen egoitzan (Juan Bautista Zabala 6), Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat. Dohainik.

ABENDUAK 11 ASTEAZKENA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat. Dohainik.

AixeGetxo! sariak. 19:00etan, Muxikebarrin, 2024ko AixeGetxo! Kultura sarien banaketa. Sarrera gonbidapenarekin (Muxikebarri, Romo Kultur Etxea).

ABENDUAK 12 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Laura Herreroen "La mami" (AJB). 7 urtetik aurrera. 3,50€.

ABENDUAK 13 OSTIRALA

Kontularien kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte) ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen bilera.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Matteo Garronerren "Yo capitán" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

ABENDUAK 14 LARUNBATA

Storytime: Santa's Elves. 11:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), ipuin kontalaria (ingelesez). 3-7 urte. Izena emateko: getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "La dama duende" (gaztelaniaz) Mic Producciones-ekin. 10€.

Kontzertua. Getxo Eszena Irekia. 19:00etan, Muxikebarrin, "Hungria Hollywood": Botond Ódor (abeslaria), Luminita Duca (pianista) eta Lucía Astigarraga (narratzailea). 12€.

Kontzertu solidarioa. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Gospel Bilbao taldearen emanaldia Bidesari elkartearen alde. 10€.

Gabon kontzertua. 16:15ean, Algortako Kristo Erosle elizan, Sopelako Urepel Abesbatza eta BBKantuz eta Bilboko Club Deportivo koruen eskutik. Sarrera librea.

Dantza plaza. 19:00etan, Areetako Eskoletako plazan, erromeria udalerriko Dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

ABENDUAK 15 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Robotia" (gaztelaraz). 2,50€.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "La isla de las aves. Eli y otros cuentos" (gaztelaraz). 2,50€.

Haurrentzako antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "La bruja rechinadientes" (gaztelaraz) Katua & Galea Teatroarekin. 4 urtetik aurrera. 6€.



Terrorismoaren biktima guztiei omenaldia

Amaia Aguirre alkatea buru izan zen astezken honetan, hilak 4, Udalak terrorismoaren biktima guztiei egindako omenaldian, 2009ko martxoan Osoko Bilkuran lortutako akordioaren ostean. Ekitaldian Udaleko talde politiko guztietako ordezkariak izan ziren, EH-Bildukoak izan ezik. Txistulariek *Agur Jaunak* interpretatzen zuten bitartean, minutu bateko isilunea egin zen eta, ondoren, ekitaldia amaitzeko, lore sorta bat utzi zuten San Inazio plazan dagoen *Guztion etxea* izeneko eskulturaren oinean.

Obra txikien udal-kudeaketa %102 areagotu da

Udalak 2022an proba pilotu gisa gaitutako Aurretiazko jakinarazpen espresak izeneko programa informatikoari esker, obra txikien kudeaketa %102 handitu zen iaz. Igoera hori errepikatu egin da 2024an, eta herritarrei obra-baimenak eta dagozkion ordainketak berehala eta modu pertsonalizatuan eabaztea ahalbidetu die. Iñigo Urkitza Hirigintza Diziplina Zerbitzuko zinegotziak eman zituen datuok azken osoko bilkuran, EH-Bilduk aurkeztutako mozio bati erantzunez. Mozio horren bidez eskatu da kanpoko enpresa batek auditoretza bat egin dezala "*Hirigintza Arloaren kaudimenari, prozedurari, beharrezaneri, baliabideei eta eraginkortasunari ezari buruz*". Eta mozio hori atzera bota zuten.

Zifrek bermatzen dute egindako kudeaketa, kontuan hartuta obra txikien aurretiazko jakinarazpenen kopuruarekiko aldea: 2023an 1.733 izan ziren guztira, eta 2022an, berriz, 855 (+% 102). Aurten 1.839 konpondu dira. "*Aplikazioaren bidezko kudeaketa berriari esker, obra txikien harrera arindu da, eta, gainera, autolikidazioak automatikoki sortzen dira, ordainketa-gutuna barne; hau da, herritarrek berehala eabazten dute obra- eta ordainketa-baimena*", adierazi zuten Urkitzak.

Fatxadei, estalkiei eta antzeko egiturei eragiten dieten lizentzien kudeaketari dago-kionez, askoz gutxiago dira

(2022an 508 izan ziren eta 2023an 367). "*Egia da espediente horien zenbatekoa nabarmen txikiagoa bada ere, askoz ere espediente konplexuagoak direla, izapide batzuk Udalaren mende baitaude, baina beste batzuk beste administrazio baten mende. Zailtasun horiek eta esku hartzen duten aldagaiak direla eta, kasu batzuetan dokumentazioa zuzentzeko errekerimenduak dituzten espedienteen pilaketa bat dago, denboran luza daitezkeenak*" azpimarratu zuten Urkitzak.

Ildo horretatik, eraginkortasun handiagoa lortzeko asmoz landuak izaten ari diren alderdi batzuk zerrendatu zituzten: prozedurak, izapideak eta dokumentuak sinplifikatzea eta automatizatzea; Udalak dituen tresna informatikoak ahalik eta ondoen erabiltzeko neurriak; horretarako, ahal den heinean, aurretiazko jakinarazpenetan lizentzia gisa aurkeztutako espedienteak bideratu eta tresna egokiekin kudeatuko dira; eskaeren zuzenketak saihestea eta murriztea; adimen Artifizialeko proiektu pilotu bat egitea dokumentuak berrikusteko eta egiturei eragiten dieten txostenak egiten laguntzeko, udalean eraldaketa digitala ezarri arte.

Diziplina Unitaterako aldi baterako programa, inplikaturako pertsonentzako lagungarria izango dena, batez ere lizentzien epeak hobetzeri bideratuta daudenei dagokienez.

Dirulaguntzen ordenantza aldatzea

EAJ-PNV, PSE-EE eta PPren aldeko botoekin, eta EH-Bildu eta Elkarrekin Podemosen abstentzioarekin, oniritzia eman zitzaion azken udalbatzan udalaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzen ordenantza orokorraren aldaketaren hasierako onespenerari. Podemosek 19 zuzenketa aurkeztu zituen, eta horietatik bost onartu ziren, genero-ikuspegia txertatzeko parametro jakin batzuk txertatzeari buruzkoak. Beste bederatzi ez ziren bidezkoak. Aldaketa horren bidez, Dirulaguntzei buruzko Legean egin diren lege-erreformetara eta berdintasunaren arloko araudira egokitu nahi da. EH-Bilduk eta Podemosek adierazi zuten, ordenantza lege kanpokoaren, eskaerak telematikoki bakarrik aurkezteko aukera ematen zuelako, hala ere, orain eskaerak aurre aurkezteko aukera ematen da.

Era berean, Bozeramaileen Batzordeak Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta egindako Adierazpen Institutuzionalaren berri eman zen. Hala ere, osoko bilkura horretan, Gorka Mostajo Galdurozek EAJ/PNVko zinegotzi kargua hartu zuen, Mikel Erkoreka Gonzalezen ordean, irailaz geroztik Eusko Jaurlaritzako Erakundeen Baliabideetako zuzendaria baita.

Onetsitako mozioak

Aho batez onetsi zen Elkarrekin Podemosek mural bat egiteko aurkeztu zuen mozioa, zeinaren bidez indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeak ikusarazi nahi baitira. Horretarako, Berdintasun Kontseiluak, kolektibo feministek eta herriko emakumeen elkarteek laguntza emango dute.

PPren bi moziori ere eman zitzaion oniritzia, lekukotza gisa: bata, Getxoko estankotetan metxero hutsak uzteko ontziak jartzeko, eta, bestea, Fueros kalean arrapala mekanikoak jartzeko izapideak hasteko.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaurlaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza lortutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza, Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Mediapost. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Programazio zabala izango da Muxikebarrin 2025eko lehen lauhilekoan

Muxikebarri zentroak 50 ikuskizuneko programazio anitzarekin emango dio hasiera 2025. urteari, eta lehenengo lauhilekoan zirku ikuskizunak integratzearen eta haurrentzako eskaintza handitzearen alde egingo du. Zirkuari dagokionez, Getxora iritsiko dira, besteak beste, Berdinki konpainiaren *Leinu*, La Famen *Ambulant* eta La Trócola Circ katalanen *R.E.M.*; txikienek, berriz, honako muntai hauekin gozatzeko aukera izango dute: *Go! azen 11*, Gorakada taldearen *Moko*, Txirri, Mirri eta Txirribiton pailazoak, txotxongiloak, *Bremengo musikariak*, Txulalaren Mugitu zaitez ikuskizun berria eta *Pinotxo* antzerkirako bertsioa.

Musikan nobedadeak aipagarriak



dira, besteak beste, *Neguan Flamenko* zirkloaren kontzertuak eta Getxo Live jaialdia. Besteak beste, honako talde eta ekitaldiak izango dira: Feté Fetén; *La verbena de la paloma* zartzueta; *Rigoletto*; Jota Martina pop-elektronikoko taldea; Olaia Inziarte; Delirium Tremens beterranoen rocka; Olatz Salvador; eta

Sheila Jordan (ahotsa) eta Cameron Brown (kontrabaxua).


Antzerki proposamena Oscar Terolen *¡Ay Dios!* umorezko bakarriketarekin hasiko da. Ondoren, hainbat antzezpenez izango dira, horien artean: José Sacristán eta Ana Marzosa protagonista dituen *La co-*

lección; Rafael Álvarez *El Brujoren El viaje del monstruo fiero*; Albert Camusen *Arrotza* eleberrian inspiratutako *Epaiketa arrotzari*, Barandi konpainiarena; *Ninini*, Antton Telleriarena; eta *Inmaduros* korapiloen komedia, Carlos Sobera, Elisa Matilla, Ángel Pardo eta Lara Dibildosekin.

Eta dantza Osa+Mujicaren eskutik iritsiko da, lanaren kulturaz go-goeta egiten duen *Lana* obrarekin; eta saritutako La Veronal konpainiak antzerkia eta zinea ere batzen dituen *Firmamento* aurkeztuko du.

Urtarrileko eta otsaileko ikuskizunetarako sarrerak atera daitezke dagoeneko. Egitaraua: www.getxo-kultura.eus

Getxophotoko Open Callek baditu irabazleak



F. Vespignaniren "Short Term, but Long Term".

Rosa Lacavallak (Italia), Carlos Idun-Tawiahk (Ghana) eta Federico Vespignanik (Italia) irabazi dute Getxophoto Irudi Jaialdiko *Open Call* artista bisualentzako nazioarteko zortzigarren deialdia, migrazioei, familia album afrikarrari eta Palestinako gerrari buruzko lanekin, hurrenez hurren. 400 proiektu inguru aurkeztu dira.

Deialdi honek aukera ematen du 2025eko Jaialdiaren 19. edizioan irabazleen lanak erakusteko. Maria Ptqk ere izango da komisarioa, eta programazioa REC gaiaren inguruan antolatuko da.

"Eukalyptus" antzezlanak hausnarketara eramango gaitu

Muxikebarri zentroan *Eukalyptus* antzezlan eskainiko dute larunbat honetan, hilak 7, 20:00etan hasita. Lurra nola kudeatzen dugun eta naturarekin nola bizi garen azaltzen du antzezlan horrek. Jon Ander Urresti, 2022ko Durangoko Azokako Sorkuntza Bekaren irabazleak, Matxalen de Pedro koreo-

grafo eta irakasleak, Nerea Ibarzabal idazle eta bertsolariak eta Beñat Urrutia aktoreak idatzi dute lana. Zalantzatik abiatuta, ikuskizunak publikoa gogoetara eraman nahi du, bereziki nor garen eta inguratzen gaituena nola eraikitzen dugun hausnartzera. Sarrerak 6 euro balio du.


Jazz kontzertu didaktikoa familientzat



Muxikebarriko Arrigunaga aretoan *FamiJazz* kontzertu didaktiko elebiduna eskainiko da igande honetan, abenduaren 8an, 5 urtetik gorako seme-alabak dituzten familientzat.

Musikaren bidez elkarrekin gozatzeko asmoz, euskal interpreteen talde ezaguna bildu da, esate baterako, Kike Mora (baxua), Rakel Arbeloa (bateria), Elsa Garcia-Li-

"Tu-Tum, Platz!", Jon Plazaolaren umorezko ikuskizun berria



Jon Plazaola aktore gipuzkoarra bere sorlekura, bere sehaskara, itzuli da *Tu-Tum, Platz!* Umorezko ikuskizun berriarekin. Muxikebarrin antzeztuko du ostiral honetan, hilak 6, 19:30etik aurrera.

Euskarazko bakarriketa da, ordubeteko iraupena duena, eta gazte zein helduei dago zuzendua.

Antzezlanaren izenburuak erreferentzia egiten dio norbaitek txiste txar bat kontatzen duenean erabiltzen den onomatopeiari. Hain zuzen ere, Plazaolak egunerokotasunaren eta deserosotasunaren arteko puntu hori bilatu nahi du. Ordubete gozatzeko eta barre egiteko antzezlan. Sarrerak 6 euro balio du.

Nigerreko uranio meategiei buruzko dokumentala



Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarrekin, Udalarekin eta Caóaticarekin elkarlanean, antolatutako *Beste ahotsak*, beste begiradak zirkloak Amina Weiraren *La colère dans le vent* dokumentala eskainiko du datorren ostegunean, hilak 12, 19:00etan, Romo Kultur Etxean, doako sarrerarekin.

Weirak Nigerreko Arlit, bere jaio-terria, erakusten du. Bertan Areva multinazionalak 1976tik uranio meategi bat ustiatzen du. "Gaur egun, eskualde horretako zati handi bat kutsatuta dago. Erradioaktibitatea ez da ikusten eta biztanleek ez dute arriskuen berri. Nire aita, erretiroa hartuta dagoen meatzeko langilea, pelikula honen bihotzean dago", azaldu du zuzendariak. Ondorengo solasaldian Sani Ladan eta Jatou Fall, geopolitika ezagutzen dutenek parte hartuko dute, eta deskolonizazioaren errealitate gordina eta migrazioen arazoak ulertzen lagunduko dute.

zundia (saxoa) eta Mikel Gaztañaga (pianoa).

Kultur Etxearen *Getxo Eszena* Irekia getxotarrek sustatutako edo egindako programazio artistikoko proposamenen deialdian hautatu zen ikuskizuna.

18:00etan hasiko den emanaldirako sarrerak 6 euroko prezioa dute.

Migratzaileen Nazioarteko Eguna

Kultur artekotasanaren eta anti-rrazismoaren balioak eta printzipioak aldarrikatzea baita harrera, aniztasuna eta bizikidetzaren ere da abenduaren 18an Migratzaileen Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta Udalak eta entitateek antolatutako jardueren helburua. "Funtsezkotzat jotzen dugu kulturartekotasunean eta aniztasunean sakonduko duten kultura-jarduerak eta hausnarketa kritikoa sustatzea eta herritar guztiak gonbidatzen ditugu programatutako jarduerekin bat egitera eta horietan parte hartzera", adierazi du Mihaela Jilavu Gazteria eta Kulturartekotasuna eta Immigrazioko zinegotziak.

Jarduerak

Getxo Antirrazista programaren eskutik, Lamine Thior komuni-

katzaileak *Españul* bakarrizketa eskainiko du abenduaren 18an, asteazkenean, 19:00etan, Romo Kultur Etxean. Gainera, *Yo capitán* pelikularen proiektzioa izango da abenduaren 13an, ostiralean, 21:00ean, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, eta *Bidasoa 2018-203* filmarena hilaren 19an, 19:00etan, Muxikebarrin. Bietarako sarreraren prezioa 3,50 eurokoa izango da. Bestalde, abenduaren 20an, 19:00etan, *Con acento* musikalak ikusi ahal izango da Romo Kultur Etxean, Let's Dance Producciones Artísticas izenekoaren eskutik.

Gazteleketan ere tailer bat izango da, nerabeak migrazio-prozesuez eta migratzaileen harreraz sentsibilizatzen.



Argia Fundazioaren artisautza produktuen erakusketa

Algortako Geltokia plazan, abenduaren 13an, ostirala, *Eskuekin sortzean, amets egiten dugu* eskulangintzako produktuen erakusketa egongo da, Algortako Trinitate kalean lekutatutako Argia Fundazioaren Eguneko Ospitaleko erabiltzaileek eginda. Erakusketaren ordutegia

10:00etatik 15:30era izango da. Artisan moduan egindako lanen erakusketaren helburua "egunegun osasun mentala hobetzen ahalgintzen diren pertsonen gaitasunari balioa ematea da, gizarte kohesio-natuagoa eraikitzen laguntzarekin batera", azaldu dute Fundaziotik.

Arrate Illarok irabazi du 2024ko Txillardeggi-Hausnartu saria

Arrate Illaro Etxebarria getxotarrak irabazi du aurten Txillardeggi-Hausnartu Soziolinguistika lehiaketako lehen saria, *Giza baliabideen kudeaketa euskararen normalizazioaren sektorean: talentua atxikitzea eta pertsonen motibazioari eustea (faktoreak, indarguneak eta erronkak)* lanarekin.

Illaro Eusko Jaurlaritzako Euskara teknikari lan egiten ari da gaur egun; bertsolaria da, Euskaraldiaren koordinatzailea izan da baita Euskaltzaleen Topaguneko kidea ere. Getxotarrak 2.000 euro jasoko ditu, Soziolinguistika Klusterrak eta UPV-EHUK antolatutako sariagatik.



Euskaraldiaren Getxoko "Hamaikako" 11 kideak aurkeztuta

Euskaraldiaren laugarren edizioan udalerriko *Hamaikakoa* osatzen duten 11 enbaxadoreak edo ordezkariak ezagutzera eman zituen larunbatean, azaroak 30, Udalak, eta Egizu eta Bizarra Lepoan elkarrekin osatutako batzordeak Algortan antolatutako ekitaldi batean. Hain zuzen ere, enbaxadoreak Javier Onaindia, Ainhoa Calderón, Celeste Agüero, Begoñe Eguskiza, Ane Omagogeaskoa, Laura Siles, Iñaki Etxegia, Xabier Ugarteburu, Irune de la Maza, Irene Ezkurra eta Tere Elvira izango dira (argazkian ezkerretik esku-mara). *Elkar mugituz egingo dugu* lelopean, Euskaraldia hizkuntza-arieta datorren maiatzaren 15etik 25era ospatuko da eta orduan aipatutako pertsonen ekimenaren helburuak lortzen lagunduko dute eta, aldi berean, esparru desberdinetan euskararen erabilpena sustatzen ari diren.

KIROLAK



XL. Itziar López de Uralde Oroi-lasterketa

Abenduaren 15ean, igandean, egingo da XL. Itziar López de Uralde Oroi-menezko Lasterketa. Ohiko herri-lasterketa da, Getxo Atletismo Klubak antolatzen du Getxo Kirolak-en laguntzarekin, eta 11:00etan abiatuko da Faduratik. Udalerrian zehar eginiko 9,2 km-ko ibilbidearen ostean Fadurara itzuliko da berriro, atletismoko pistako helmugara. Lasterketaren aurretik, 10:30ean, haurrentzako eta familientzako 2,6 km-ko lekukotasun-proba egingo da. Inskripzio-epaia zabalik dago abenduaren 12ra arte: www.getxoatletismo.eus.



Eunate Etxebarria, zilarra estatuko txapelketan

Getxo Judo Klubeko Eunate Etxebarriak (ezkerreko lehen dominaduna argazkian) zilarra lortu berri du Kanaria Handiko Espainiako Txapelketa absolutuan. Sorbaldako lesio baten ondorioz, ezin izan zuen finala jokatu +78 kg-ko kategorian, eta, beraz, Valentziako Dayle Ojedak lortu zuen urrea. Eunatek ez zuen lehen kanporaketa jokatu, hirugarren zerrendaburua baitzen. Final-zortzirenetan Mariel Solís kataluniarra eta final-laurdetan Noa Fernández asturiarra gaititu zituen. 17 lehiakidek parte hartu zuten maila horretan.



App mugikor berria Udaltzaingoaren eraginkortasuna hobetzeko

Udalak aplikazio mugikor berri-tzaile bat garatu du, Udaltzaingoaren patruilen eraginkortasuna hobetzeko berriaz diseinatua. "Aplikazio honek aldatu egingo du abisuak kudeatzeko eta gorabehera erantzuteko modua. Izan ere, modu azkar eta eraginkorragoan jarduteko aukera emango digu, Getxoko herritarrei zuzenean mesede eginez. Gainera, Koordinazio Zentroaren deskongestioak aukera emango du baliabideak modu eraginkorragoan kudeatzeko eta larrialdiei eta laguntza-eskaerei azkarrago erantzuteko. Era berean, aplikazioak polizia-jardueren gardentasun handiagoa eta jarraipen hobe erraztuko ditu", Keltse Eiguren Herritarren Segurtasun Arloko zinegotziak aditzera eman duenez.

App-aren ezaugarriak eta funtzionaltasunak

Udaleko IKT unitateak (Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia) garatu du app mugikorra, eta hainbat funtzionaltasun aurreratu ditu:

- Abisuen informazioa denbora errealean eguneratzea, erantzun azkarragoa eta koordinatuagoa emanez.
- Kokapen-mapak: aplikazioak barne hartzen ditu gertaeren kokapen zehatza erakusten dutenak, patruilei bertara modu eraginkorragoan iristeko aukera emanez.
- Abisuen historial xehatua, gorabeheren trazabilitatea eta jarraipena hobetuko ditu.
- Berehalako komunikazioa: aplikazioak udaltzaingoen eta Koordinazio Zentroaren arteko komunikazio zuzena eta azkarra ahalbidetzen du, etenik gabeko informazioa ziurtatuz.
- Jakinarazpenak eta alertak, abisu berriei edo eguneratze garraztsuei buruzkoak, uneoro jakinaren gainean egoteko.

Aplikazioak funtzionaltasun- eta segurtasun-estandar altuenak betetzen ditu. "Oso harro gaude app

berri hau aurkezteaz, gure herritarren segurtasun eta ongizatearekin dugun konpromisoaren lekuko baita. Tresna honen bidez, espero dugu gure Udaltzaingoaren eraginkortasuna nabarmen hobetzea eta komunitateari kalitate handiagoko zerbitzua eskaintzea", Zalua Campillo Gobernu Irekia eta Modernizazioa Arloko zinegotziak adierazi duenez. Dagoeneko App-aren inplementazioa gauzatzen ari da eta udaltzaingek berriazko prestakuntza jaso dute tresna berria erabiltzeko.



Argitaratu dira Sarrikobasoko 68 BOEn behin-behineko esleipendunen zerrendak

Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuak argitaratu ditu Algortako Sarrikobason alokairuan emango diren 68 babes orokorreko etxebizitzaren behin-behineko esleipendunen zerrendak eta itxaron zerrendak. Babes ofizialeko etxebizitza horiek Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko akordioaren emaitza dira (Visesa sozietate publikoak gauzatu ditu), eta udalerrian babes publikoko etxebizitzak sustatzeko administrazioen arteko lankidetzaren barruan kokatzen dira. Zerrendak kontsultatzeko: <https://tinyurl.com/3srs7dhn>



Gabonetako argien ohiko piztea

Jende ugari elkartu zen Bizkaia Zubia plazan aurreko ostiralean Gabonetako argiak pizteko ekitaldian. Bertan Amaia Aguirre alkatea, Juanma González Ekonomia Sustapeneko zinegotzia, Gabonetan saltokietan banatuko diren agendak ilustratu dituen Alex Orbe getxotarra, eta GetxoEnpresa, Algortako Dendak, Romo Bizirik eta Berantzagi dantza taldeko ordezkariak izan ziren, besteak beste. Horiekin batera, ekitaldian La Glo Circo, Utopian, GetxoPari iratxo eta abarren animazioa ere izan zen.

Getxon egingo da V. Sail Inn Pro, itsas sektorearen topaketa

Datorren abenduaren 11n eta 12an, BiscayTIKen eta Olatuan, hurrenez hurren, SAIL INN PROren V. edizioa egingo da. Nautikaren sektoreko berrikuntzaren enpresak eta protagonistak biltzen dituen topaketa da.

Edizio honetan, nautikaren arloko lehen mailako gai batzuk jorratuko dira: hala nola ozeanoak kontinente arteko autobide bihurtzea, 120 km/h-ko abiadura har dezaketen merkataritza-ontziekin; material birziklagarriekin %100 fabrikatutako

munduko lehen ontziari buruzko xehetasunak; mekatronikako azken aurrerapenak eta datu-azterketa on batek ontzi profesional baten emaitzan nola esku har dezakeen. Nazioarte mailako adituak izango dituzte aipatutako gai guzti horiek hizpide. Besteak beste, Fabio Bigolini, Elvira LiAbres, Roger Frigola eta José Luis Vela.

Sarrerak www.sailinnpro.com webgunearen bidez eros daitezke dagoeneko, eta bertan dago ekitaldiaren programazio eta informazio guztia.

Udalak ASTEKLIMA 2024 saria jaso du

Udalak ASTEKLIMA 2024 saria jaso du, lurralde historikotik tokierakundeek Euskadiko Klimaren eta Energiaren Astean egindako ekimenik onenari dagozkiona. Ekitaldi hori iragan urrian egin zen, Ihobe Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak eta EEE- Energiaren Euskal Erakundeak antolatuta, Klima Aldaketaren aurkako Nazioarteko Egu-

naren esparruan eta Ekintza orok, txikia izan arren, badu bere garrantzia lelopean.

Familiako Klima Tailerrak izeneko ekimenagatik etorri da saria. Ekimen horretan, klima-aldaketaren inguruan modu ludikoan eta xedetzat hartutako publikoari egokitutako forman diseinutako hainbat tailer eta jarduerak sartzen ziren. Adituez osatutako epaimahai batek klima-aldaketaren aurkako borrokan eta trantsizio energetikoaren sustapenean egindako ekimen esanguratsuek aitortu du proiektua eta oso positibotzat jo du Getxoko proposamenaren kalitatea eta eragina. 5.000 euroko diru-hornidura lortu du sari gisa.

Aurten lortutako arrakasta ikusita, Ingurumen Zerbitzuko zinegotziak, Iñigo Urkitzak, aurreratu du "2025ean Aste Klimaren aldeko apustua egiten jarraituko dugula, gure ohituretan aldaketa positiboa sustatzeko, klima-aldaketa geldiarazten laguntzeko".

Habia-kaxen tailerra

RKE-Romo Kultur Etxeak txori txikienezako eta saguzarrentzako habia-kutxak muntatu eta eraikitze tailer berria hartuko du datorren larunbatean, hilaren 14an. Jarduera udal Ingurumen Sailak antolatu du, eta bereziki txikienei zuzenduta dago eta ordutegia, 10:00etatik 13:30era izango da, bi txandatan banatuta (10:00-11:30 eta 12:00-13:30) jardueraren eraginkortasuna hobetzeko, eta talde txikietan antolatuko dira, helduek lagunduta, habia-kutxak muntatzen lagunduko baitiete haurrei. Parte hartzeko beharrezkoa da alde aurretik izena ematea, ordutegiaren lehentasuna adieraziz eta boluenatura@gmail.com helbidera mezu elektronikoko bat bidaliz.

Udal talde politikoaren iritzia



KONPROMISOA GETXOREKIN

Getxo udalerriko emakume eta gizonekin konprometitu gaude, hau da, Getxon bizi edo lan egiten dutenekin; gure udalerriko bizi-kalitatea bermatzeko nahiz udalak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak bikainak izan daitezzen.

Akordioak lortzearekin konprometitu gaude, udalak, udal-gobernuak eta, horrenbestez, Getxo udalerriko osoak denon onurarako diren proiektu eta jarduketan aurrera egiten jarraitzeko.

EAJ-PNV, PSE-PSOE eta PPren arteko akordioa 2025erako aurrekontua onesteko. Getxoztarrok zerbitzurik onenak izateko akordioa: Bidezabaleko arrapalak osorik eta Ereagako igogailua ia osorik eraberritzea; Salsiduko arrapalak hobetzea; Getxoko hiri-autobusa probatzea; eta Areetako Mesedeetako kalean dagoen aparkalekua handitzea.



Akordio politikoak zenbait zerbitzu eta proiektu dakartza, besteak beste: Biotz Alai osorik aldatzea, liburutegi gehiago ateratzea kalera, komun publiko

gehiago jartzea, Fadurako harmaila bermatzea, eta laguntza zehatza eta argia ematea merkataritza-sektoreari nahiz gizarte-eremuari.

Desberdinen arteko akordio politikoak lortu dugu, hitz egiteko eta akordioetara heltzeko borondatea erakutsi dutenekin, alegia. Hala, Getxoko 2025erako aurrekontua bermatzen duten hiru talde politikoetako bakoitzak amore eman du gairen batean. Akordioetara heltzeko ezinbestekoa da nahi izatea, ekiteko prestatzea eta lan egitea. Hala ere, argi dago batzuentzat errazagoa dela kritikatzeko, gaizki esaka aritzea eta demagogiaz betetako eta funtsik gabeko mezuak zabaltzea.

EAJ-PNVk argi dauka Getxorekin eta getxoztarrekin sinatutako proposamenarekin duen konpromisoa, zeina betetzen ari baikara eta betetzen jarraituko baitugu: 137 milioi euro 2025ean Getxon eta Getxorentzat inbertitzeko.



FORU KALEAN ARRAPALEN LAU TARTE INSTALATZEKO PROPOSAMENA

Gure alderdiak Getxoko mugikortasuna hobetzeko proposamen bat aurkeztu du, **Algortako Foru kalean arrapala mekanikoen lau tarte instalatzeari buruzkoa**. Horren bitartez kale horretan dagoen desnibel handia gainditu nahi dugu eta, modu horretan, **udalerriko zenbait toki garrantzitsu** lotuko lirateke: **Hirigintzako udal-eraikina, epaitegiak, Ogasun Ordezkaritza, Alangoko anbulatorioa eta ertzain-etxea**. Adinekoen eta mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasuna ere bermatuko litzateke. Proposamenaren lehenesten da inguruan eta bide publikoan eragina murriztea;

hortaz, hiri-paisaia errespetatzen duten arrapalak jarri nahi ditugu, irisgarritasuna bermatzeko. Halaber, proiektu honek gure alderdiak aurkeztutako beste ekimen batzuekin egiten du bat, esaterako aipatzekoak dira **Arrigunaga eta Bidezabal lotuko litzuzketen arrapalak, Aiboa kalekoak**, eta **Makaleta etorbidearen eta Udaberri kalearen arteko hiru tartearak**. Horregatik guztiatik, azaroko osoko bilkuran azkenik onetsi egin zen gure taldeak aurkeztutako proposamena. Espero dugu gure gobernu-taldeak adostutakoa egikaritzeko konpromisoa hartzea eta aurreikusitako neurriak hartzea.



1.zatia



2.zatia



3.zatia



4.zatia

ehbildu

GETXO HOBETZEKO 50 PROPOSAMEN

EH Bilduk 50 emendakin aurkeztuko dizkio Udal Gobernuaren aurrekontuari, osoko emendakina bat aurkezteaz gain. Guztira, 11,4 milioi euroko inbertsioak izango dira.

Gure proposamenak, batik bat, arlo hauen inguruan batzen dira: etxebizitza, mugikortasun jasagarria, auzoetan inbertsioak, trantsizio ekologikoa, parkeetan hobekuntzak... Hemen jaso ditugu hainbat proposamen:

Etxebizitzan, besteak beste, udal lurzoruaren alokairuzko etxebizitza sozialak

eraikitzea proposatzen dugu, etxebizitza hutsak mobilizatu eta kanona aplikatzearekin batera. Mugikortasun eta hirigintza arloan, EH Bilduk hobekuntzak planteatzen ditu kale ugarietan: Algortako etorbidea, Zientoetxe, Andres Cortina, Kasune, Sarrikobaso... Ikastetxeen irteera eta inguruetan ere oinezkoen lehentasuna ematea proposatzen dugu. Beste ideia bat auzo-taxi zerbitzua martxan jartzea izango da, behar bereziak dituzten pertsonen begira, Getxobusarekin presioa egiten jarraitzen dugun bitartean.

EH Bilduk hobekuntzak proposatuko

ditu Getxoko ia auzo guztietan: Andra Marin eta Aldapan auzo-etxeak; eguneko zentroa Areetan; hobekuntzak umeentzako parke ugarietan (Arkotxa, Arrigunaga, Santa Ana, Ortzadar, Zubileta...); Telletxen eta Malakaten komunak jartzea; Mimenagako padura berreskuratzea... Kultur eta kirol azpiegiturretan ere inbertsioak indartzea proposatuko du EH Bilduk: Andra Mari kiroldegia eraberritzea, Errotatxun rokodromoa eta Getxo Abentura gunea; Fadurako udako igerilekuan aterpea ezartzea; Zubiletan pump-track gunea; Algortan liburutegi berri bat; frontoi publiko

berri baterako azterketa; zine-aretoak mantentzea...

Beste proposamen batzuek Udalaren eraginkortasuna eta funtzionamendua hobetzea proposatuko dute: etxez etxeko zerbitzua modu zuzenean kudeatzea, hirigintza arloan ikuskaritza egitea, politikarien soldadak jaiste, bigarren berdintasun teknikari bat kontratatzea... Azkenik, EH Bilduk ere proposatuko du kultur, kirol eta gaitortzeko elkarten diru-laguntzak %10 igotzea eta Palestinarentzat laguntza humanitarioa bideratzea.



GETXOKO LEHENTASUNAK BULTZATZEKO AURREKONTU-AKORDIOA



HORMA-IRUDI FEMINISTA

Getxoztarrek ez dute gehiago osorik eman hautetsontzietan eta, beraz, **adierazi digute ezinbestekoa dela akordioak lortzea**. Testuinguru horretan, nabarmendu nahi dugu udal-gobernua osatzen dugun taldeok (PSE-EEK eta EAJK, Alderdi Popularrarekin batera) lortu dugun akordioaren garrantzia, funtsezkoa baita **2025eko udal-aurrekontuak onesteko, betiere lehentasunezko proiektuak bul-**

tatzeko eta Getxo hobetzen jarraitzeko helburu nagusiarekin.

Gure ustez, akordio egokia da; izan ere, mugikortasunari, jasagarritasunari, irisgarritasunari, etxebizitzari eta gizarte-kohesioari lotutako ekimenak bultzatzen ditu bereziki, eta **ardatz nagusia da getxoztarren bizi-kalitatea hobetzea**. Hona-ko lan hauek egiteko inbertsioak sartu dira: **Areetako aparkaleku publikoa** egokitzea

mugikortasuna hobetzeko; **hiri-autobusa** ezartzea; eta zenbait azpiegitura, hala nola arrapalak eta igogailuak, instalatzea **udalerriko irisgarritasuna hobetzeko** (Bidezabalen, Salsidun, Ereagan, etab.). Gizarte-eremuari dagokionez, arreta zabalagoa eskainiko zaie mendekotasuna duten adinekoei; horretarako, **plaza gehiago sortuko dira etxebizitza komunitarioetan eta eguneko arreta-zerbitzuetan.**

Getxok horma-irudi feminista izango du. Horrela behar du, Udalbatzak bigarren onetsi duelako, eta berriz ere aho batez, indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeak omentzeko egin dugun proposamena. Ondo irakurri duzue. Udal-talde honek bigarren aurkeztu du erabaki-proposamena eta aurrera aterako da. Parte hartzeko bidea irekitzeko eta hura gauzatzeko unea da.